




Iraunkortasunabuletina

Asteazkena, 2024ko azaroaren 27a
Atea: 19

DEIALDIA

[u4impact: aprobetxatu azken egunak eta egin zure GrAL/MAL inpaktuarekin](#)

Benetako erronka bat landu nahi duzu iraunkortasunarekin konprometitutako enpresa, fundazio eta ekintzaileekin? u4impact plataforma haiekin harremanetan jartzen laguntzen ditzu inpakta duen GrAL edo MAL bat egiteko. Deialdia azaroaren 30era arte egongo da zabalik eta [webgune honetan](#) kontsulta dezakezu informazioa.



ALBISTE INTERESGARRIAK

[Erasmus+ GO GREEN proiektuaren agurra](#)

Bi urteko ibilbidearen ostean, [GO GREEN](#) proiektua amaitu egin da. Taldea [IKASGARAIA](#)ko ikertzaileek (gure [Campus Bizia Lab](#) programako partaideak), Technological University of the Shannon (TUS) eta Italiako, Errumania eta Portugalgo bigarren hezkuntzako zentroek osatu dute. Pairatzen dugun krisi ekosozialaren aurrean, irakasleak online prestatzeko modulu bat eta Iraunkortasunerako Hezkuntza ikasgelara eramateko proposamen zehatzak sortu ditu proiektuak, betiere hurbileko problematikak kontuan hartuta eta GreenComp gaitasunen esparruan.

[Ezagutu elikaduraren bidez herritarrek GJHei egiten dieten ekarpena](#)

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak hitzordu berri bat antolatu du elikagaien jasangarritasunarekin. Topaketa honetan "[Elikaduraren arloko jardunbide egokien qida](#)" aurkeztuko da, elikagai-hautaketaren bidez Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) lortzeko interesa duten herritarrentzat. Gainera, etorkizun iraunkorrago bat eraikitzeko gure elikadura-erabakien funtsezko zeregina eztabaидатуко да.



HURRENGO EKITALDIAK

Ez galdu!

2024/11/28. [Boluntariotzako erakundeen erakusleihoa](#). Lan Harreman eta
Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Campusa.

2024/12/02 – 2024/12/13. [Erakusketa: Uraren politikak eta poetikak](#). Bizkaia
Aretoa. Bilbao.

2024/12/04 – 2024/12/18. [Tailer ekosozialak. Bizitzaren defentsan hezten
duten esperientziak. Unibertsitateko curriculumean ikuspegi ekosoziala
jorratzen](#). Bilboko Hezkuntza Fakultatea.

2024/12/05. [Boluntarioen nazioarteko eguna](#)

2025/02/20 – 2025/02/21. [Symposium on Qualifications, Training, Micro-
Credentials and Sustainable Development](#).

NEWSLETTER HAU ZURE NEEWSLETERRA DA

2700 harpidetu baino gehiago ditugu dagoeneko. Buletin honetan
jasangarritasunarekin zerikusia duen edukiren bat ezagutzera eman nahi
baduzu, idatz iezaguzu iraunkortasuna@ehu.eus helbidera.